

Arrasate

P R E S S

1998ko
Urtarrilak 16
391. zenb.

Astore,

Arrasateko marka peto-petoa duela zazpi urte sartu zen kirol jantzien munduan. Uribesalgo familiaren proiektuak gaur egun kirol izen handienekin lehiatzen du estatuan.

made in Arrasate



IKUSPEGIA: MATILDE SAINZ • KULTURA: KARRA ELEJALDE
KIROLAK: ANGEL MORALEJA • IRITZIA: AGUSTIN UNZURRUNZAGA

a n t z e r k i a

LA KABRA TIRA AL MONTE



**Karra
Elejalde**

Zuz.
José A. Ortega

**Urtarrilak 18 domeka
19.30etan
Amaia Antzokian**

Urte berri on,
antzerki berri on!

Sarrera: 1.000 pta. (Gazte Txartelarekin: 800 pta.)



ARRASATEKO UDALA

Sarrerak aldez aurretik salgai Amaia
Antzokiko takilan.

Zapatuan: 18:00-20:00

Domekan: 17:30etatik aurrera

Haurren etxeko lanak direla eta...

Oporrak pasa direla eta egokia iruditu zaigu guraso guztien ardura diren haurren etxeko lanez gogoeta egitea. Zenbait etxetan arazo bihurtzen den gaia dugu hau, eta, gehiengotan, hau horrela izaten da ikasleari eskolan egindakoarekin jarraitzeko eskatzen zaiolako, eta, egia esan, eskolan egindakoa etxean errepikatzea aspergarria da benetan. Beste zenbaitetan ikasleak eskolan bukatu ez duena bukatu egin beharko du etxean eta hau ere oso aspergarria da haurarentzat.

Dakigunez, haurrak eguneroko egoera anitzetan ikasten du zerbait. Bere bizitzaren zati handi batean etxean eta eskolan ikasten dihardu. Baina zer erlazio dago etxean eta eskolan ikasten duenaren artean? Zer zubi sortzen dira aipatu bi kontestuen artean? Zoritzarrez, eskola eta etxea, berezita dauden bi mundu dira haurrendako.

Egia esan, batean eta



Matilde Sainz de Osnaga

"Dakigunez, haurrak eguneroko egoera anitzetan ikasten du zerbait"

bestean haurrak egiten dituen iharduera-motak desberdinak dira, nahiz eta beren artean erlazioren bat izan. Ikasteko moduari begiratzen badiogu, honetan ere desberdinak direla ohartuko gara: etxean berezko aprendizai gertatzen da, eskolan, berriz, programatua. Beraz, garbi dago kontestu bakoitzak bere ezaugarriak dituela eta ez direla bata bestearekin ordezkatu behar, bakoitzak bere funtzioa betetzen baitu haurraren garapenean.

Ettxeko lanetara bueltatuz, badirudi ikasteko bi kontestu hauen artean zubiak luzatzea dela egokiena, haurra bietan ikasitakoak erlazionatuz eta aberastuz joan dadin. Badirudi zubi hauek luzatzeko - eskolatik etxerakoak eta alderantzizkoak- tresna egokia izan daitezkeela etxeko lanak. Baina, jakina, helburu honi erantzungo dioten etxeko lanek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte:

-Eskolatik etxera edota etxetik eskolara informazioa

eramatea. Adibidez, haurrak eskolan ikasi duena beste kontestu batera aplikatzea etxean gurasoen laguntzarekin, edota, gurasoek dakizkiten atsotitz, abesti eta abarrak buruz ikastea....

-Gurasoekin erlazio-mota berria sortarazteko aukera ematen duten lanak. Egunerokotasunarekin zerikusia ez dutenak, gogoeta eta ekintzak konpartitzea eskatzen dutenak...

-Haurrak eskolan egiten dituen ariketa mekanikoetatik urruntzen direnak, ikasitakoak zabaltzea edo borobiltzea edota ikuspuntu desberdinetatik aztertzekeo aukera ematen dutenak...

-Eskolak eman ez dizkion interpretazioetarako bidea ematen dutenak. Beste kultura edo ikuspuntuetatik aztertzekeo aukera ematen dutenak...

-Gurasoen aldetik formazio berezia izatea eskatzen ez dutenak, horrela balitz etxeko lanak elementu diskriminatzaile bihur litezkeelako.

Laburtzeko, esan daiteke etxeko lanek euren zentzu osoa hartuko dutela eskola eta etxearen arteko zubi egiten dutenean, hau da, gurasoak eta haurren arteko harremanak indartzeko, eskolako gaiak konpartitzeko, eskolan ikasitakoak beste kontestu batzuetara zabaltzeko... balio duten heinean. ■



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Maria Agirre. Kazetariak: Ixaroz Zubillaga, Marian Porcel, Pabli Montero. Publizitateak: Kaitlin Allende, Nerea Zalilo (Tel.: 77 08 15). Administrazioa: Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). Diseinua: Golo Arana. Kolaboratzaileak: Ander Etxebarria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaroz Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenaga, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrahaaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. Banaketa arduraduna: Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Lege-ordainak: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeko konfiantzaria. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azalako argazkiak: Ignacio Perez.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

391. zenbaki honetan

1998ko urtarrilaren 16an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	28/29
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/23	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepassoa...10		30 galderetan	26	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Matilde Sainz 3

Euren ikuspegitik

Agustin Unzurrunzaga 8

Aurrez aurre

Joseba Ezpeleta 24/25

Kulturaren txokoa

Karra Elejalde..... 29

Asteko gaia

Import Arrasate:..... 17/19

Arrasaten egiten diren Astore eta Ternua markako kirol jantzien inguruan gehiago jakiteko Import Arrasate enpresako arduradunekin izan gara.



16

ostirala

■ ZINEA

Mimic. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ANTZERKIA
ARETXABALETAN

Loramendi euskara elkar-
teak antolatuta, *Deabru beltzak*
taldearen *Kontzertu beltza* an-
tzezlana eskainiko da Ar-
txabaletako Loramendiren
lokalean arratsaldeko 8etan.

17

larunbata

■ ZINEA

George de la Jungla. Alai
zineman 5etan, 7.30etan eta
10etan.

■ ANTIMILITARISTEN
EKINTZA

EUDIMA barruan dauden
udaletxeek bilera izango dute
Monterronen goizeko 9.30etan
intsumisioen egoera aztertze-
ko. 12etan Arrasateko talde
antimilitaristak hainbat ekin-
tza egingo dute EUDIMAKo
udaletxei elkartasuna adie-
razteko.

■ IGERILEKUA ITXITA

Musakolako igerilekua
arratsaldez itxita egongo da
igeriketa txapelketa jokatu-
ko delako.

■ KONTZERTUA ATERPEN

Balangado Brasilgo jazz
taldeak kontzertua eskainiko du
Aterpe tabernan gaueko
11etan.

18

igandea

■ ZINEA

George de la jungla. Alai
zineman 5etan, 7.30etan eta
10etan.

■ ANTZERKIA AMAIA
ANTZOKIAN

Karra Elejalde aktoreak
La Cabra tira al monte an-
tzezlana eskainiko du Amaia
antzokian, arratsaldeko
7.30etan. Sarrera: 1.000 pta.
eta gazte txartelarekin 800 pta.

19

astelehena

■ ZINEA

George de la jungla. Alai
zineman 7etan eta 9.30etan.

20

asteartea

■ ZINEA

George de la jungla. Alai
zineman 7etan eta 9.30etan.

22

osteguna

■ ZINE KLUBA

Dead man. Amaia antzo-
kian gaueko 9.30etan. Sarre-
ra: 400 pta eta Gazte Txarte-
larekin 350 pta.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

ZUK NAHI
Taberna
Pintxo goxoak
giro onenean!

Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

■ **NORBERA ZAINZKEO IKASTAROA**

Norbera zaintzeko ikastaroa antolatu du Arrasateko Yoga elkarteak. Astearte eta ostegunetan emango dira klaseak, arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte. Luzatze ariketak, masaia, teknika naturistak eta ariketa txinoak ikasiko dira besteak beste. Informazio gehiagorako deitu 77 01 33 zenbakira.

■ **IKASTARO GAZTEAK**

Alboka ikastaroa, urtarrilaren 17tik San Juanak arte, larunbat goizetan emango da. Prezioa 3.000 pezeta. Ikasle eta langabetuendako 1.500 pezeta. Karibeko dantzen ikastaroari dagokionez, hasi berriendako urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra arte emango dira klaseak astelehen eta asteazkenetan, 7.30etatik 9.30ak arte, Musakolako Saloian. Sakontze mailakoa, berriz, otsailaren 23tik martxoaren 25era. Txalaparta ikastaroa, urtarrilaren 30etik San Juanak arte luzatuko da. Ostiraleroko arratsaldeko 8etan Musakolako Saloian. Prezioa 2.000 pezeta. Ikastaroetan izena emateko Gazte bulegora zuzendu edo 77 00 65 zenbakira deitu.

■ **MUSEAN JOLASTEN IKASTEKO IKASTAROA**

Roman Lopezek emakumeendako mus ikastaroa antolatu du. Doanekoa izango da. Izena emateko 79 15 34 zenbakira deitu edo Muruamendiaren zuzendariaren zuzendutara deitu.

■ **BESAIDEREKIN MENDI ESKI IRTEERA**

Besaidek mendi eski travesia antolatu du

urtarrilaren 31 eta otsailaren baterako. Formigalera joango dira. Joateko baldintzak federatuta egotea, mendi eskiko materiala, pioleta eta kranpoiak edukitzea. Izen ematea urtarrilaren 26an eta 27an egin behar da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte.

■ **MASAIA IKASTAROA**

Zapaturu masaia ikastaroa emango da Arrasateko Yoga elkartearen aretoan. Ordutegia arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Emalea: Jose Luis

Armendia. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 79 35 76 zenbakira.

■ **ARCO: ARTE GARAIKIDEAREN FERIA**

ARCO arte garaikidearen feria ikusteko, *Bedelkar elkarteak* Madrilerako autobusa antolatu du. Autobusak Bergara eta Arrasateko irtengo dira. Irteera otsailaren 13an, arratsaldeko 7.30etan, eta itzulera domekan. Prezioa 16.500 pezeta: bidaia, hotela, armozua, feriara joateko autobusa barne. Interesatuok deitu 77 91 58

zenbakira arratsaldeko 5etatik 9ak arte. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 30a.

■ **LOGOTIPO LEHIAKETA**

Gaia: Gazteak batuz elkarlana bultzatu. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 30a. Logotipoa koloretan eta zuribeltzean entregatu behar da. Lanak entregatzeko tokiak: Gazte Bulegoan, Hitza eta Ekintza Elkartean, AEDn eta Musakolako eta San Andreseko Gazte Txokoe-tan.

■ **HARATUZTEAK 1998 KARTEL LEHIAKETA**


Haratuzteak 1998 kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea urtarrilaren 23an bukatuko da. Arrasaten bizi eta erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Irabazleak 50.000 ptako saria jasoko du. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira.

■ **ARRASATEKO ZIKLOTURISTEN OHARRA**

Bazkideen lizentziak berritzeko epea zabalik dago. Taldeko bazkide izan ez, baina zikloturista lizentzia nahi duenarendako prezioa 8.500 pezeta. Horretarako *Tandem ciclismo* dendara zuzendu. Lizentzia egin eta era berean taldeko bazkide izateko ordaindu beharrekoa 11.500 pezeta.

■ **EUSKO ALKARTASUNAREN MUS TXAPELKETA**

Arrasate Eusko Alkartasunak IX. mus txapelketa antolatu du urtarrilaren 23an hasteko. Parte hartzeko izen ematea urtarrilaren 19a baino lehen egin behar da Alkartetxean.



■ **KERAMIKA IKASTAROA**

Arrasateko keramika taldeak keramika ikastaroa antolatu du. Klaseak urtarrilaren 26an hasiko dira bi hilabeteko iraupenez. Astelehenetan eta asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9ak arte emango dira eskolak. Prezioa: bazkideendako 3.000 pezeta eta ez direnendako 7.000 pezeta. Izen emateko deitu 79 87 95 zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 16**
• Gaez: Español, Iturriotz.
- Larunbata 17**
• Gaez: Corcuera, Musakola.
- Igandea 18**
• Gaez: Irizar, Erguin.
- Astelehena 19**
• Gaez: Amezua, Santamaina.
- Asteartea 20**
• Gaez: Zabala, Zarugalde.
- Asteazkena 21**
• Gaez: Ruiz, Maala.
- Osteguna 22**
• Gaez: Morales, San Andres.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igalatorioa . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 78 71 57
- Ambulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak). . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
 . . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Ambulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
 . . . 79 78 44
 . . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

ESKERRIK ASKO

Ermuko San Martin festa-
ren inguruan iazko aza-
roaren 28an antolatu genuen
Mikel Laboaren jaialdia dela
eta, Arrasatera etorri ginen
jaialdirako sarrera batzuk
eskaini eta San Martinen
inguruan antolatzen genituen
ekitaldien berri emateko.

Arrasateko komunikabi-
deen aldetik (ARRASATE
PRESS, Arrasate Telebista,
Arrasate Irratia) zein AEDk
eskainitako laguntza eta
emandako erreztasunak
goraipatu nahi genituzke eta
baita ere, sarrera erosi ondo-
ren etorri ziren arrasatear
guztiak.

Azkenik barkamena eska-
tu nahi genuke, jaialdia hasi
baino lehenago sarrerak agor-
tu zirelako eta jende asko
jaialdira sartu ezinik gelditu
zelako. Batzuk etsita aldegin
zuten, beste batzuk ordea (30
inguru) bertan geratu eta azke-
nean, antzokiko atezainak
barneratu zituen inongo sarre-
rarik kobratu barik.

Jaialdia, arrakastatsua
izan zen guzti hau alde batean
gauzak hobeto egiteko espe-
rantzarekin jaso ezazue gure
esker eta agurrik beroena.

Zorionak eta urte berri on
denoi!

*Ermuko Euskal Birusa
euskara elkarte*

ANTXON FERNANDEZ-I

Abenduaren 30ean lehen
aldiz joan nintzen kon-
tsumitzaileen eskubideen ber-
mearen aldeko bulego bate-
ra, eta lerro hauen bidez, egun
horretan zure aldetik jaso
nuen axolagabeko tratua dela
eta, jarrera hori publikoki
salatu nahi nuke, nire ustez
lanpostu hori betetzen (bar-
katu! zure kasuan okupatu
esan beharko nuke) duen per-
sonaren perfilean, kontsu-
mitzaileekiko sentsibilitate
apur bat edukitzeak ezinbes-
teko baldintza izan beharko
luke eta.

Lehen momentutik esan
nizun Bergarako naizela eta
bertaratu ninduen arazoa Ber-
garan gertaturikoa zela. Hori
nahikoa izan zen beste ba-
tzuen lanak betetzeko prest
ez zeundela esateko. Harri-
turik baina nire haserrea esta-
liz, etxe berri bat erosi ondo-
ren hamar urteko garantiarik
egoten ote den besterik ez
nuela jakin nahi adierazi
nizun. Saiakera hau ere alfe-
rrikakoa suertatu zen zuk
zure jarrera petral horri eutsi
zenion eta.

Bukatzeko, esan behar
funtzionario peto-petoe zare-
la argi utzi zenidala eta "Her-
tzainak"ekoak pinuz potro-
taraino zeuden lez, nik fun-
tzionarioez nola esan...

*Jose Luis Loidi
Larrañaga*

**ERREGE KABALGATAN
LAGUNDU DIGUZUEN
GUZTIOI**

Eskutitz honen bitartez,
Ezuegandik jasotako
laguntza guztia eskertu nahi
dizuegu.

Jakin ezazue aurten ere
zuen laguntzarik gabe ezin-
go genukeela hau guztia anto-
latu eta are gutxiago burutu.
Dena den, haurtxoen (eta ez
hain haurtxoen) poz eta harri-
dura aurpegiak ikustea jasan-
dako neke guztien ordain
aparta izan da guretzat. Gure-
tako hala izanik, zuen nahi
eta esperantza guztiak asetu-
ta geratuko zirela uste dugu.
Badakigu gauzak asko hobetu
daitezkeela, eta horretarako
hurrengo urteetan ere zue-
kin elkarlanean jarraitzea
espero dugu.

Beraz Arrasateko Udala,
Zeziaga, Eroski, Ford-Muga-
rri, Meca-Renault, Citroen-
Txapime, Kutxa, Banco Vito-
ria, Banco Santander, La Cai-
xa, B.B.V., Banco Guipuz-
coano, Banco Hispano Ame-
ricano, Euskadiko Kutxa,
Atxa Egurrak, San Viator
ikastetxea, S.U.D.C., Deba
Garaiko Gurutze Gorria,
Komunikabideak eta orohar
jaiotzan eta kabalgatan par-
te hartu eta lagundu diguzuen
guztioi, bihotz bihotzez, mila
esker!

*Arrasateko errege
kabalgatako komisioa eta
bere izenean Galtzagorri
astialdiko taldea*

**UGARAN
jatetxea**
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
**Martxa eta estilo
handiko erropa**
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Zer iruditzen zaizu eutanasia?



Marcelino Segovia
(50 urte)
Langilea

Norberak bere biziarekin nahi duena egiteko jabe izan beharko luke. Adibidez, orain hil den gizon honek 25 urte eman ditu eutanasia eskatzen, eta horrela bizitzeko ere...



Joana Onkala
(16 urte)
Ikaslea

Pertsona bat gaizki bada-go eta ez badu gehiago bizi nahi, eutansiarako aukera izan beharko luke. Gaixo terminalen kasuan legezkoa izan beharko luke eutansia.



Ines Tena
(17 urte)
Ikaslea

Bizitza norberarena da eta norberak erabaki behar du.



Jordan Castro
(20 urte)
Ikaslea

Alde nago. Landare bat bezala bizitzeko... Neronek egingo nuke, edo egiteko eskatuko nuke.



Joakina Leibar
(56 urte)
Etxekoandrea

Sufritzen egotea ere, ez dakit... baina gauza serioa da, ondo pentsatzekoa.



Kepa Kabua
(18 urte)
Ikaslea

Norbera gustora ez bada-go bere gorputzarekin edo hiltzeko gogoa badauka, norberaren eskubidea da.



Asier Urrutia
(18 urte)
Ikaslea

Utzi egin beharko lukete eutanasia egiten, askotan bizi-rik gehiago sufritzen da eta.



Ascensión Iñiguez
(49 urte)
Etxekoandrea

Sufrimendu handi baten aurrean bidezkoa izan daiteke, baina ez daukat oso garbi; kasuaren arabera.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Nekaturik edo hankako minez zabiltz?

- Neurri egindako plantilla bereziak
- Lanerako zuekoak
- Oinetako erosoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

GAMMA

**ELEKTROLOGIA
ZENTROA
BEHIN-BETIKO
DEPILAZIOA**

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

USTEAK USTE

Joanak
joan

Nork lagundu zion hiltzen Ramon Sampedrori?

Auskalo, niri horrek ez dit inporta. Nahi izanez gero askoz ere lehenago hilko zen, baina 29 urte ohean pasatu dituen gizonak ez ditu urteak alperrik galdu eta eutanasiaren alde borrokatzen ari da. Azkenean nahikoa borrokatu eta sufritu duela erabaki eta joan egin da.

Gezurra dirudi baina ardi bat klonatzera heldu garen garai honetan, eta gizakiaren klonazioa ere posible dela dirudienean, toki batzuetan pekatua da eutanasia. Alde egon ala ez, nik garbi daukat sufrimenduak eta minak mugaren bat izan behar dutela. Sufritzen dagoenari eta joatea eskatzen duenari ezin zaio luzaroan horrela jarraitzeko eskatu.

Ramon Sampedro joan zaigu baina bera moduan beste batzuk ere joateko itzaroten daude. Gaiari erantzuna ematea zaila iruditzen zaigu, baina beharbada inoiz ez delako sakonean aztertu. Ordua da eutanasiaren gaiari heltzeko.

Maria Agirre



Txabolak bota edo ijitoak kanporatu?

Agustin Unzurrunzaga

Arrasateko gobernu taldeak Arrasaten bizi diren ijito batzuen etxebizitzak botatzeko agindua eman berri du. Etxebizitzek, ez omen zituzten arau municipalak betetzen.

Arrasateko gobernu batzordeko partaideek, pertsonen eskubideen ginetik jartzten dituzte arau municipalak. Azken finean, ijitoak direnez gero, ez zaie ajola. Pertsona konkretu horien eskubideak eta beharrak lehenengo mailan jarri beharko lituzkete, eta udal arauak soilik buruan izateaz gain, irtenbide konkretuak eskaini. Eta hori ez dute egin.

Edozein erakunde hartzen dituen erabakiak epaitzeko, bere ondorioak ere kontuan hartu behar dira, ez bakarrik erakunde horrek esan edo idatzi duena.

Giza Eskubideen Adie-

razpen Unibertsalak, bere hamahirugarren atalean, zera dio: "Pertsona orori zor zaio estatu baten lurralde barruan ibiltzeko eta egoitza auke-ratzeko askatasuna". Ijitoek, historikoki baztertuta, diskriminatuta eta zapaduta izan den herri bateko partaideek, eskubide osoa dute Arrasate aukeratzeko bizilekutzat.

Arrasateko udal batzordeko partaideek, ijitoak Arrasateetik bota nahi dituzte. Hori da, lehen aipatu dudana bezala, ekintza honen ondorio zuzena: herritik botatzea. Ez

dute agindu zuzenik eman, baina ijitoak erabat baldintzatu dituzte bertan jarraitzeko.

Udal gobernuko partaide guztiak, ziur nago, euren adierazpenetan Giza Eskubideen defendatzaile sutsuak dira. Baina onartu berri duten erabakia, giza eskubideen aurka doa zuzen-zuzen; historikoki diskriminatuta egon diren pertsona batzuren eskubideen aurka, baliabide gutxi dituzten pertsona batzuren aurka.

Udal batzordeak hartutako erabakia ez da bidezkoa, zapaltzailea da. Indar gutxi duten pertsona batzuren bizkar gainean hartu den erabakia. Eta kontradiktorioa udaleko sail batek hartutako erabakiarekin, ongizate sozialeko sailarekin hain zuzen. Zertarako balio du hitzaldi bat antolatzea bizi diren auzoan, laguntzaile bat jartzea umeen gobernurako, bizitzeko baldintzei ez bazaizkie irtenbide zuzenik ematen?

Agustin Unzurrunzaga
Gipuzkoako
SOS Arrazakeriako
kidea

“
Arrasateko udal
batzordeko partaideek
ijitoak Arrasateetik
bota nahi dituzte
”

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Harremanekoek milioi bat lortu dute**

Gabonetan zabaldu zuten azokaren bidez milioi bat pezeta lortu dute Harremaneko kideek. Seber Altube plazan jarritako azokan arrasatearren artelanak jarri ziren salgai, eta guztiak saldu ez badira ere gehienek izan dute eroslerik. Antolatzaileak oso pozik azaldu dira jende asko hurbildu delako azoka ikustera. Lortutako dirua Kolonbian aurrera ateratzen ari diren San Klemente proiektura zuzenduko dute Harremanekoek.

■ **Ijitoen txabolak kendu egin dituzte Udaletxeko langileak**

Astelehenean hasi ziren Udaletxeko langileak Anbulategiaren atzealdean ijitoek eraiki zituzten txabolak kentzen. Hala ere, hamar ijito-

ek ez dute Arrasatetik joateko asmorik, eta furgonetan bizitzen geratu dira toki berean.

Ongizate batzordeburua den Blanca Roncalek adierazitakoaren arabera, momentuz Udalak ez die etxebizitarik edo laguntza ekonomikorik emango. Roncalen esanetan, ijitoek Udaletxean laguntza eskatu ahal izango dute baldin eta herrian enpadronatzea erabakitzen badute. Horrela eginez gero, eta handik sei hilabetera, Udalak edozein arrasatearri eskaintzen dizkion laguntzak eskatzeko aukera izango lukezela gogoratu du Roncalek.

■ **Pakete batek susmoa eragin zuen San Andresen**

Igande arratsaldean Ertzaintzaren artezilaria San Andreseko Foruen plazan izan ziren. Laugarren zen-

bakidun etxebizitzaren aurrealdeko lorategian pakete susmagarri bat zegoela eta parte hartu zuten artezilariek. Paketeak ezer arriskutsurik ez zuela ziurtatzeko asmoz, zabaldu eta barruan kable batzuk zeudela ikusi zuten. Ikerketak iraun zuen bitartean inguru guztia lokarri zehaztuta egon zen.

■ **Al-Andalusek batzar orokorra egin zuen**

Joan den igandean batzar orokorra egin zuen andaluziarren elkarteak. Batzarrean erabaki garrantzitsu batzuk hartu zituzten. Batetik, erabaki zen lokal zaharra atletismo taldeari uztea. Bestetik, herriko beste elkarte kulturaleri atak zabaltzea pentsatu zen. Era horretan, txoko beharrea dauden taldeei gela bat utziko zaie andaluziarren egoitza berria.



Ingurugiroaren arazoaren baitan arazo ugari dago. Ekosistema globala da. Jerarkiak ezartzea gaitza bada ere, gure arazorik larrienetakoa zaborrena delakoan nago. Orain larrutik ordaintzen gabilta iraganeko garapenkeria basatia: ur eta zolu kutsatuak, habitat ezin hondatuagoa... Jakina, hau guztia konpontzeko inon direnak eta bi egin behar! (...)



Gizarteak gero eta zabor gutxiago pilatuko duela sinistu gura dut, ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Horretarako, beharrezkoa da denon konpromezua. Ondoren, birziklapenean pentsatzen hasteko moduan izango gara. Momentuz hauxe da gure erronka: zabor kantitatea murriztea. (...)

Ekologismoaren barruan denetarik dago. Talde batzuekin primeran konpontzen naiz; beste batzuekin, berriz, ez hain ondo. (...)

ESTHER LARRAÑAGA
Emakunde. 29. zenbakia.



KONTZENTRAZIOAK PPko ZINEGOTZIAREN HILKETA SALATZEKO

Zapatuan Lau Bidea eta Zastelehen eguerdian Udaletxearen aurrean, kontzentrazio isilak egin ziren Jose Ignacio Iruretagoienaren hilketa salatzeke.

Zapatukoan jendetza handia bildu zen, eta astelehenean zinegotziek eta Udaletxeko langileek parte hartu zuten.

JUBAR
ATEAK. S.L.

- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Jaiotzak


- Arane Ibañez Gonzalez. Abenduaren 3an.
- Iñigo Cadiñanos Garay. 10ean.
- Maider Aroa Martinez Vargas. 15ean.
- Olaia Gonzalez Hernandez. 16an.
- Elene Lopez Felix. 18an.
- Mikel Teran Mancebo. 19an.
- Olatz Hernandez Pozo. 22an.
- Irune Lopez Ruiz. 23an.
- Eider Lopez Santana. 24an.
- Jokin Perez Iñurria. 29an.
- Pablo Salaberri Lasa. 31n.
- Ainhoa Urrutia Abarrategi. Urtarrilaren 2an.

Ezkontzak

- Javier Uribetxebarria Bolinaga eta Judit Uribarren Arana. Zibilez. Abenduaren 16an.
- Victor Manuel Martinez Iglesias eta Delfina Martinez Abad. Zibilez. 20an.
- Jose Joaquin Etxegia Sagastibelza eta Miren Etxebarria Ezkurra. Zibilez. 20an.

Hildakoak

- Pilar Gauna Malo. 89 urte. Azaroaren 27an.
- Ricardo Gorosabel Etxagibel. 86 urte. 29an.
- Estefania Mugika Iza. 80 urte. Abenduaren 5ean.
- Pedro Garcia Benitez. 83 urte. 5ean.
- Luis Zeziaga Bolinaga. 67 urte. 8an.
- Maria Josefa Agirre Larrañaga. 45 urte. 8an.
- Jose Estevez Arroyo. 88 urte. 12an.
- Juana Azkoaga Aldanondo. 89 urte. 28an.
- Juan Jose Axpe Zeziaga. 72 urte. 29an.
- Dionisio Ibabe Errasti. 77 urte. Urtarrilaren 1ean.
- Victor Galdos Oñatibia. 87 urte. 1ean.



Tonelaje handiko bi kamioi trinkogailudunek Akein zaborra jaso eta Beasaingo Sasietara eramango dute.

Akei eskualdeko zaborrak biltzeko zabalduko da uda partean

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantziatuta, Deba Garaiko Mankomunitateak Akeiko zabor erraustegia hondakin urbanoen biltegi bihurtuko du. Lanak nahiko aurreratu-ta daude eta orain arte 28 milioi inguru inbertitu dira. Obrei esker, tonelaje handiko kamioi trinkogailudunek jasoko dituzte hondakinak. Kamioiendako plataforma, bi tolba karga egiteko eta sarbidea egokitu dira momentuz. Hurrengo hilabeteetan, grua berria jarri eta teilatua konponduko dute.

Prozesua honakoa izango da: bi kamioi artikulatuk (80 m³koak) Akein utzitako zaborra jasoko dute; gutxi gora-behera 23 tona bakoitzak. Ondoren, zaborra Beasaingo sasieta zabortegira eramango dute. Mankomunitateak 2.500 pta ordaindu beharko du tona bakoitzeko. Akeiren egokitzapen obra osoak 40 bat miloi kostatuko duela aurriztatu da.

SASIETAN SARBIDE BERRIA

Beasaingo Sasieta zabortegian sartzeko arazo larriak dituzte altuera handiko kamioiek. Hori dela eta, Foru Aldundia sarbide berria egiten ari da. Oraindik bukatu barik badago ere, udarako amaitzea espero dute. Mankomunitateko gerentea den German Berezibarren esanetan, Akeiko obrak San Juanetarako bukatuta egongo dira; beraz, hile batzuren buruan, zaborrak Akein jaso eta tonelaje handiko kamioekin Sasietara eraman ahal izango dituzte.

INBERTSIO ERRALDOIKO PLANA

1996ko abenduaren leian utzion Akeiko erraustegiak kea botatzeari. Gipuzkoako hondakin urbanoetarako plan osoaren arabera, erraustegi eta zabortegiak itxi eta hiru zabortegi handi izango dira bakarrik Gipuzkoan: Lapatekoa Azkoitian, San Mar-

kosekoa Oreretan eta Sasietakoa Beasainen. Lapatekoa Urola Erdialdeko eta Urolako kostako hondakinak eramango dira. San Markosera Donostia, Irun, Orereta eta Hondarrabikoak. Deba Graiko eskualdeak, Aramaio barne, Sasietako zabortegian utziko ditu hondakin urbanoak. Gure eskualdean 18.380 tona zabor bildu ziren iaz.

Europak eta Eusko Jaurlaritzak araututako zabortegi kontrolatuetan, trinkotutako hondakin urbanoak pilatuko dira 2020 urtera arte.

Akei itxi zenetik, Epeletik eramaten dute Sasietara eskualdeko zortzi herrietako eta Aramaioko zaborra. Akeiko obrak bukatutakoan, bertan bilduko da Deba Garaiko zaborra eta handik Sasietara eramango dute. German Berezibar, Mankomunitateko gerentek dioenez, izugarriko inbertsioa egingo du Aldundiak plana aurrera eramateko.

Farmazilarien asmoa

24 orduz zabalik egongo den farmazia bat eskualde osorako

Eusko Jaurlaritzak kaleratu duen araudi baten arabera, 98tik aurrera herri bakoitzak bere gaurdia zerbitzua eskaini behar du derrigorrez. Horren arabera, Arrasatek eta Bergarak ezin dute guardiako zerbitzua konpartitu. Gaur egun, bi herrietako farmaziek txandaka egiten dute guardia. Farmazilarien Elkar-goia ez dago Jaurlaritzak ezarritakoarekin ados eta araudia errekurritu du. Arrasateko Udalak, bestalde, errekursoaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu.

Auziari irtenbide bat eman nahian, aste honetan bildu dira Arrasaten eskualdeko farmazilariak. Momentuz, errekurtsioa jartzeaz gain, araudiari alternatiba bat aurkezteko asmoa ere badute. Farmazilariak proposatzen dute eskualde osoan 24 orduz farmazia bakarria egotea zabalik. Farmazia hori Arrasaten kokatuko litzateke, bailara-



Maalako farmazia proposatu da 24 orduko zerbitzuarekin hasteko.

ko larrialdietarako zerbitzuak hemen konzentratzen direlako. Farmazia, herriaren erdigunean kokatuko litzateke, eta oraingoz, Maalako farmazia proposatu da. Farmazia honek urte betez hartuko luke 24 ordutan zabaltzeko ardura, eta hurrengo urtean beste farmazia batek hartuko luke txanda.

24 orduko farmazia mar-

txan jartzeko bi langile kontratatu beharko lirakekeenez, horri aurre egiteko, eskualdeko farmazilari guztien artean ordaintzea pentsatu da.


Farmazilarien alternatiba aurrera atera dadin, lehenengo eskualdeko 22 farmazilariak ipini beharko dira ados, eta gero Osasun Sailburuordetzak onartu beharko du.

Sei elbarrituren lanpostuak aztergai Fagorren

Fagorren lan egiten egon diren sei langile elbarritu lan barik geratu dira momentuz. Joan den astean kontratuak bukatzen zitzaizkiela eta, Fagorreko hautaketa komiteak kontratuak ez berritzea erabaki zuen.

Astelehenean, berriz, Fagorreko zuzendaritza bildu eta hautaketa komitearen erabakiarekin bat datorrela jakinarazi arren, gaia aztertzea erabaki zuen azken erabakia hartu aurretik.

Lankideak taldea, berriz, langileei kontratuak luzatzearen alde azaldu da. Hauen esanetan, kontratua ez luzatzeak kooperatiben izaera soziala hausten du. Fagor Taldeko kontseilu sozialak ere langile horien alde bozkatu, eta elbarrien inguruko informeak administrazioko talde multiprofesionalek egin ditzatela eskatu zuen. Kontseilu sozialaren ustez, elbarrituen integrazioa bultzatu beharra dago.



GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Mocketak Alfonbrak

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoendako altzari sail berria topatuko duzu bertan!

Zatoz estreinatu dugun erakusketa berria ezagutzen!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

EUDIMAKo partaideen bilera egingo da bihar Monterronen

Euskal Herriko Udal Intsumisioen Mankomunitateko ordezkariak Arrasatera hurbilduko dira bihar, zapatuan, bilera egiteko. Monterronen egingo den bileran EUDIMAKo partaide diren udaletxeetako ordezkariak bilduko dira. Une honetan Euskal Herriko 40 udaletxe daude EUDIMA barruan, eta udaletxe bakoitzetik pare bat ordezkari hurbilduko direla uste da. Uztailean arte Juan Luis Arexola Leiba, HBko zinegotzia, izan da herriko ordezkaria, eta ordutik EAko Jose Antonio Barriocanal da ordezkaria.

Biharko bileran EUDIMAKo lehendakari berria aurkeratu eta zuzendaritza batzordearen erdia berrituko da. Horretaz gain, iazko urtearen balantzea egin eta aurtengorako dituzten asmoen berri emango da. Joseba Villarreal EUDIMAKo koordinatzailearen esanetan, iazkoa urte positiboa izan zen erakundea gorpuztu egin zela-



Gaur egun 40 udaletxe dira EUDIMAKo partaide.

ko eta gizartearen ohiartzuna izan zuelako. Aurrera begira, berriz, aholkularitza batzordea martxan jarri nahi dutela azpimarratu du.

Navajas fiskalak jarri duen kereila ere hizketagai izango da biharko batzarre-

an. Fiskalak aurkeztutako kereilaren arabera, intsumisioa delittoa da eta beraz, EUDIMA legez kanpoko erakundea. Une honetan kasua instrukzio epaitegian dago eta horrek erabakiko du kereilak aurrera egin dezakeen.


Oztopo arkitektonikoak gainditzeko bidean

Enpresa espezializatu batek Arrasatera erraz ailegatzeko plan berezia egin du. Plan horren helburua, beste gauza batzuren artean, oztopo arkitektonikoak kentzea da. Ikerketa eginda baina oraingoz udaletxean ez dago hori aurre-eramateko planik.

Hala ere pentsatzekoa da datozen urteetan alor horretan zerbait egingo dela, izan ere Euskal Autonomi Elkartearen apirilean sartuko da indarrean hirizgarritasuna sustatzeko legea. Horren arabera, erakunde publikoek eta establezimendu publikoek oztopo arkitektonikoak kentzeko neurriak hartu eta sarbidea erraztu beharko dute. Legeak neurri desberdinak aurreikusten ditu, eta udaletxe bakoitzari eskatuko zaio horren inguruko plana egitea datozen lau urteetarako. Legeak arlo desberdinetan aurrakusten ditu aldaketak, bai erakunde publiko zein establezimenduetan.


SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

BAKAILO ETXEA 

- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAKO bakailoen espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragónés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07



ESKER ONA

1997ko abenduaren 21ean, X urte zituela hil zen **Kontxu de la Maza Aranguren**en familiak bihotzen **eskertzen** ditu jasotako doluminak, eta hileta elizkizunera agertu izana.

Ipek *Denda*

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Deskontu onenak IPEKen
%50era artekoak



TORERO, TORERO

A ze nolako estiloa duen Jose Luis Ezkurra Mondrako presidenteak sariak banatzen. Urtero lez, Jose Luis-ek eta bere semeak Arrasate Kirolak-ek eskainitako kirol ekipamendua zozketatu zuten joan den domekan. Kaxatik ateratako zenbakiak eta sariak-Arrasate Kirolakeko kirol ekipazioetan- honako hauek izan ziren: 0668 zbk.: 100.000 pta. 1919 zbk.: 50.000 pta eta 6576 zbk.: 25.000 pta.



TXERRIAREN IRABAZLEA

Santamasetako txerriak badu jabea: Esteban Sanchez, Aldape jatetxekoa. Tomasak txorizo ederrak egiteko gura beste okela kilo du, 290 inguru, baina Estebanek ez du txerriaren beharrik. Kontatu digunez, bost txerri hil ditu jatetxean odolkiak eta txorizoak edukitzeko, beraz, zozketaren dirua jasotzea nahiago izan du. Tomasa berriro ere Gesalibarrera!



JO EZAK BERRIRO SAM...

Joseba Vallesek bere argazkiak jarri ditu ikusgai Gasteizko Guridi zineman. Inaugurazioan Arabako hiriburuan bizi den bere anaia Iñakirekin egin zuen topo eta biak erre-

tratatzeko aukera aprobetxatu genuen. Josebaren argazkiek, ordea, munduko txoko ezberdinetakoa kale musikariak harrapatzen dituzte. Noiz ikusiko ditugu musika jotzen?

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE



Danona KARROZERIA

Konponketak, txapa eta pintura


Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

Rent a Car

Alkilerreko autoak.

Eta orain

TRAFIC eta EXPRES



Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

1998KO LEHEN KINTTUA

1998ko lehen eguna jai hartu zuten herriko amek eta ez zen arrasatear berririk etorri mundura. Baina hurrengo egunean, urtarrilak 2, argazkian ikusten duzuen neskatila polit hori jaio zen. Bere izena Ainhoa Urrutia da eta gaueko 9:30etan jaio zen Arrasateko Ospitalean. Gurasoak, Amaia Abarrategi eta Iñigo Urrutia ditu. Momentuz pozik daude, neskatila zintzoa delako. Ikusi besterik ez dago: argazkia ateratzeko orduan, ez zen esnatu.



IZENAK

Rafa Gomez

izango da aurrerantzean ere Al-Andaluseko lehendakaria. Bestalde, Zuzendaritza Batzordeko kide berriak honako hauek izango dira: Antonio De la Torre, Antonio Prior, Josefa Iglesias, Faustino Petite, Rafael Raya eta Calixto Sanchez.

Oscar

Berreteagarenak

aurkeztu du Santamasetako argazki bilduma onena. Bigarren bilduma onena, berriz, Juan Carlos Trojaolak eta argazki onena Jon Ozaetak.




BRUM, BRUMMMM

Arrasate Motozale Elkarteko 30 lagun Tordesillas-eko kontzentrazioan egon ziren joan den aste bukaeran. Kontzentrazioa, Europako handiena, 37.000 motozalaren topaleku bihurtu zen aurten. Arrasatekoak ondo prestatuta joan ziren, bazkaria eta beharreko dena furgoneta batean eraman zuten eta. Giroari buruz, imajina dezakezue: motorrak, txupak eta rock&rolla, yeah! Primeran pasatu zuten denek!

Ikastaro Gazteak

Alboka ikastaroa


- Urtarrilaren 17tik San Juanak arte
- Zapatu goizetan
- Hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13
- Arrasate Musikalen
- Hastapen eta sakontze mailak
- Matrikula: 3.000 pta / 1.500 ikasle eta langab.



Dantza karibearrak


Salsa, merengue, bachata

- Astelehen eta eguastenetan
- 7.30etatik 9.30etara
- Musakolako saloian
- Matrikula: 4.000 pta / 2.500 ikasle eta langab.
- Hastapen maila:
Urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra
- Sakontze maila:
Otsailaren 23tik martxoaren 25era



Txalaparta ikastaroa

- Eguakotxetan, arratsaldeko 8etan
- Urtarrilaren 30etik San Juanak arte
- Musakolako Saloian
- Hastapen eta sakontze mailak
- Matrikula: 2.000 pta.



Izen emateak: Gazte Bulegoan 77 00 65





Import Arrasate enpresan Astore eta Ternua markako kirol jantziak egiten dituzte.

Import Arrasate

Zazpi urte buru-belarri kirol jantzien merkatuan

Familiako enpresa ispirituz jaio zen 1990ean Import Arrasate. Astore markako kirol jantziak egin eta saltzen eman zituzten lehen urteak. Orain, berriz, Astoreekin batera, Ternua marka dute merkatuan. Uribesalgotarrentzat hasierako sasoiak gogorak izan ziren. Dagoeneko zazpi urteko esperientzia daukate eta esfortzuak merezi izan duela garbi dute.

Denda batekin hasi ziren Uribesalgotarrek kirol jantzien mundua ezagutzen. Denda bai, garai hartan ondo zegoen, baina etor-

kizunean zer? Bost anai-arrebek osatutako familia batentzat denda ez zen ogibide aproposena. Horregatik, beste ideia batzuk landu eta aztertzen hasi ziren. Esteban Uribesalgo Import Arrasate enpresako gerenteak eta Uribesalgo anai-arreben nagusiak esan digun moduan, sasoi hartan kirol jantzien hornikuntzan hutsunea ikusi eta merkatu horretan etorkizuna egon zitekeela pentsatuz hasi ziren lanean.

Hasierako proiektu eta asmoak ez dute zer ikusirik gaurko enpresarekin. "Ideia bat genuen baina ideia hori gauzatzeko oso egitura handia

sortu genuen. Pentsatutakoa baino azkarrago joan behar izan dugu eta emaitzak ere azkarrago etorri dira". Gaur egun Import Arrasate enpresan 53 pertsona daude lanean, komertzial saila, diseinu departamendua, biltegia eta produkzioan banatuta.

ASTORE ETA TERNUA

Import Arrasateri Astore markak zabaldu zion kirol-jantzien munduko atea. Marka horrek pisu handia hartu du, bai kaletarren artean eta bai goi mailako kirolariaren artean ere. Futboleko, besteak beste, Real Sociedad, Sporting, Eibar eta Alaves taldeak jantzen dira

Astoreko arropekin. Beste kirol talde batzuk: Bera Bera rugby taldea, eskubaloiko Corteblando, Iñurategi mendizaleak... Baina ez dira bakarrik, probintziako harrobiko kirol talde gehienetako babeslea da Astore. "Astoreekin jende asko jantzen dugu, baina jakina, guri askoz ere esparru zabalgago batera heltzea gustatuko litzaiguke". Astore, beraz, Euskal Herrian finkatuta dagoela esan daiteke. "Astorek Euskadin izan duen arrakasta ezin da parekatu estatuan duenarekin. Etxean lortu duguna kanpoan lortzea gatxa da. Kompetentziakoak ere harrিতa daude".

Pisu eta izen hori hartu ahal izateko publizitateari garrantzi handia eman diote Import Arrasatekoek. "Astorek kalitate eta estilo propioa zaintzen dueneko ospea du. Erosleari hori gustatu egiten zaio".




Astorek era guztietako arropak egiten ditu: kalerako, kirol teknikorako eta umeendako.

Nolanahi ere, Astore ez da Arrasateko enpresaren marka bakarra. Abentura eta mendi munduari begira dagoen sport-wear linea ari dira indartzen, ekologia munduarekin oso lotuta dagoen Ternua markako kirol-jantziekin. "Ternua balaen adopzio kanpaina baten barruan dago. Guk lau bale ditugu adoptatuta era sinbolikoan. Bestalde, arropak oihal erreziklatu eta ekologikoez egiten dira". Estebanen berbetan, gaur egun Astoretik bizi badira ere, Ternua etorkizuneko produktu bihur daiteke.

GOI MAILAKO TEKNOLOGIA

Import Arrasate sortu zenean teknologiaren alde egin zuten apustua. Uribesalgotarren enpresak, beste kirol marka famatu batzuek bezala, ez ditu bakarrik arropak banatzen, egin ere bertan egiten dira. "Gure hasierako planteamendua zera izan zen: marka moduan aurrera egiteko, guk geuk izan behar genuen fabrikatzaileak". Filosofia horrekin teknologia berriena erosi zuten goi mailako produktua egiteko "Gure kasuan guk kontrolatzen dugu produktu osoa. Arropen kalitatearen kontrola gure esku dago. Nazioarteko beste enpresa sonatu batzuk marka baino ez dute saltzen, banatzaileak dira. Gu, berriz, egileak eta banatzaileak".

Puntako teknologiaz hornitu zuten enpresa eta puntako teknologiaz jarraitzen dute. Hala ere, azken urteetan teknologiak baino diseinu programak izan dute bilakaera nabarmenena. Lehen eskuz



Import Arrasate enpresan 53 pertsona daude lanean, komertzial saila, diseinu departamendua, biltegia eta produkzioan banatuta. Enpresako gerentea Esteban Uribesalgo da.

egiten ziren gauzak egun erabat informatizatuta dute. "Asko mugitzen gara azken berrikuntzak ezagutzeko. Bestalde, Investronica enpresarekin kontratua dugu. Horri esker, gure sektorean gertatzen diren aldaketa guztien informazioa jasotzen dugu".

Import Arrasaten izan den beste aldaketa bat biltegian izan da. "Duela gutxi biltegi-ko lana eskuz egiten zen. Orain, errobot automatiko batek egiten du lan hori. Enpresa guztia informatizatuta daukagunez, fitxa teknikoa sartzen denetik bezeroarengana heldu arte produktua guztiz kontrolatuta dago".

KONPETENTZIA

Kirol-jantzien munduan dagoen marka ugari eta boteretsuen artean konpetentzia izugarria da. Hori dela eta, Arrasateko enpresak merkatu horretan aurrera egiteko duen erronka ez da nolana hiko. "Jakin badakigu borroka hori gero eta handiagoa izango dela eta era berean izen eta prestigioa lortzeko ez dagoela atsedena hartzerik. Gu geure neurrian eta geure baliabideekin ari gara bidea zabaltzen". Bide horretan lortutako emaitzekin pozik daude Uribesalgotarrak. "Une honetan, behar bada egiten dugun arropa mota-gatik, Euskal Herrian eta esta-

tuko ipar aldean oso gogor gabiltza. Levante eta katalunian ere ari gara sartzen eta hemendik aurrera estatuko erdi eta hego aldeko merkaturia irabazteko egin behar dugu ahalegina".

Atzerriari dagokionez, esportazioekin hasteko asmoz dabilta "Enpresa sortu zenean, Euskadi mailan lehenengo eta ondoren estatuan finkatu eta pisua hartu nahi genuen. Hori lortuta, hurrengo urratsa esportazioekin hastea litzateke. Esportazioen gaia ez dugu sekula baztertu. Gainera, hemendik aurrera gogor eutsi beharreko alorra izango da, atzerria beha-



rrrezko merkatua da eta”.

Estatuan dituzten markak finkatzea, esportazioekin has-tea eta enpresa handitzeko inbertitzen jarraitzea dira Import Arrasatekoen helburu nagusiak.

Zazpi urteko esperientzia aberasgarria izan da Arrasateko enpresarendako, baina hor ez da dena bukatzen. Oraindik bide luzea eta oztopoz beteaz izango dute. Eurak, jakina, etortzen denari aurre egiteko gertu daude. Ilusioa, kemena eta lan egiteko gogorekin Import Arrasate ahalik eta urrutien eraman nahi dute eta.

Itxaro Zubillaga

EDUARDO URIBESALGO, diseinu arduraduna

“Diseinatzeke orduan gure estilo propioa ezartzen saiatzen gara”

— **Diseinu bat egiteko orduan zertan oinarritzen zarete?**

— Ferietara joaten gara eta bertan ikusten ditugu azken orduko joera nagusiak. Gure errepresentateak bezeroekin egon eta nondik jo orientatzen gaituzte. Ondoren, enpresako arduradunak elkartu eta arropak egiteko gure irizpideak zehazten ditugu, beti ere janzten dena eta bezeroek behar dutena kontuan hartuta.

— **Zenbat diseinatzaile zaudete Import Arrasatean?**

— Bost lagun diseinatzen, eta beste bat, diseinuak egiteaz gain, publizitateaz arduratzen da.

— **Kirol-jantzien diseinuak gero eta garrantzi handiagoa dauka?**

— Lehen kirol-jantziak gauza zehatzetarako erabiltzen ziren: futbola egiteko, atletismoa... gaur egun kalerako ere badira. Gero eta kompetentzia handiagoa dagoenez, merkatuan produktua zabaldu ahal izateko, gero eta publizitate gehiago egin beharra dago.

— **Nongo ferietara joaten zarete?**

— Europako feria garrantzitsuenak Alemaniako **Ispo** da. Munduko marka guztiak izaten dira han, eta horregatik jotzen dugu bertara. Modako arropen aitzindariak, diseinu aldetik,



italiarrak dira eta teknikari dagokionez ipar-amerikarrak.

— **Kirol-jantzien eta kalekoen artean badago desberdintasunik?**

— Gero eta gutxiago. Kirol markek alkandorak, frakak, jakak... denetik egiten dute. Kirol-jantzien diseinuak gero eta dotoreagoak direnez, kalerako ere proposak dira.

— **Zein da zuen estiloa?**

— Jendeak dioenez, gure arropenak - Ternua eta Astore markakoak - berehala antzematen zaie. Egia esateko, hain estilo desberdinetako arropak egiten ditugunez, estilo bakarra definitzea zaila da. Astore markak denetik egiten du: kalerako, kirolerako eta umeendako. Ternua-k mendia eta naturarekin erlazio zuzenagoa dauka.

— **Zer bilatzen da diseinu bat egiteko orduan?**

— Kirolerako jantziak zertarako den hartu behar da kontuan, ehun egoki eta kalitatekoa bilatu eta komertziala izan dadin prezioari begiratu behar zaio. Sport estilokoetan, arropa erakar-garria eta polita izatea da garrantzikoena; oihalen kalitatea ahaztu barik.

— **Ehunak non erosten dituzte?**

— Urtean bi aldiz Parisera joaten gara. Bertan ehun-feria onena izaten da. Feria horretan joerak eta oihalak daude ikusgai, eta, bide batez, harremanak egiten ditugu. Arropa teknikoendako ehunak erosteko enpresa jakin batzuekin egiten dugu lan eta puntuak behin gugana etortzen dira azken berrikuntzak erakusteko.

— **Diseinatzeke orduan zer da konplikatuena?**

— Guk, diseinua egiteaz gain, arropa bera ere egin egiten dugu. Beraz, gure lana ez da diseinura mugatzen. Patroiak, prototipoak, muestrak... dena egin behar dugu. Hala ere, zailena idea ateratzea da; behin hori lortuta, prozesua nahiko mekanikoa da.

— **Azken erabakia nork hartzen du?**

— Denen artean hartzen dugu. Behin ideiak zehaztuta, diseinuak egiten ditugu, eta ondoren, komertzialekin izaten gara denon artean azken erabakia hartzeko.

Eskubaloiko jokalaria

ANGEL MORALEJA

“Eskubaloian igaro ditudan 15 urteak oso aberasgarriak izan dira”

— Deba Garaiko eskubaloiko jokalaria onenaren saria jaso duzu. Garrantzitsua izan da zuretzat?

— Garrantzitsua ez dakit, baina sorpresa atsegina bai. Ez nuen uste izendatuen artean egongo nintzenik.

— Zenbat urte eskubaloian jokatzeko?

— Federatuta 15 urte daramat. Kirol horri esker lagun asko eta handiak egin ditut. Bestalde, ni ere kirol horren alde dena ematen saiatu naiz.

— Urte horietako oroitzapen onenak?

— Irabazitako Gipuzkoako kopa biak, Estatuko bigarren mailara sailkatu ginenekoa eta lehen mailan jokatu ditudan urteak.

— Txarrenak?


— Hildako bi lagun jokalariri egin behar izan dizkiegun omenaldiak. Madinabeitia eta Ibonen aldeko omenaldiak oso hunkigarriak izan ziren.

— Askok aldatu da eskubaloian jokatzeko era?

— Dexente. Lehen indartsuago eta gogorrago jokatu zen. Ni orduan hobeto moldatzen nintzen.

— Aurten Arrasate sailkapeneko zuloan larri...

— Zail daukagu, baina azkenera arte ez dugu amore emango. Etxeko partiduak eta kanpoko pare bat irabazita ez dugu maila galduko. Hori lortzeko su eta gar boroak dugu.



FUTBOLA Aritz Arabiourrutia Haro taldera




Preferente mailako Mondrak bigarren bueltako lehen partidua jokatuko du

Oiartzunen kontra domekan, arratsaldeko 4retan, Atxabalpen. Mondrak lehen buelta 34 punturekin bukatu du, 4. tokian. Gaur arte gol gehien Gorka Otxoak sartu ditu; 5 guztira. Golok eta Aritzek launa. Bi gol eta gol bakarrak beste hainbat jokalaria daude. Mondrak etxean ez du norgehiagokarik galdu eta hiru berdindu ditu. Domekan hasiko den buelta baikortasunez hasiko dute jokalariek, baina ez lasaitasunez. Izan ere, euren helburua denboraldi bukaeran hiru lehenen artean sailkatzea da. Bestalde, Aritz Arabiourrutia asteartean Errioxako Haro taldeak fitxatu zuen. Dagoeneko, beraz, ez da Mondrako jokalaria. Harok 3. mailan jokatu du.

Emakumezkoen taldeak sailkapeneko erdialdean bukatu du lehen buelta. Kokapena txarra ez bada ere, Arrasatek duen taldearekin hori baino gehiago eskatu behar zaie. Datorren zapatuan, hilak 17, mondrauetarren aurkariak Añorgakoak izango dira. Partidua arratsaldeko 4.15etan jokatuko da Añorgan. Juani Garaik hiru baja izango ditu: Jone, belaunean min hartuta, Larraitx eta Idurre.

ESKUBALOIA Beste aukera bat



Arrasate eskubaloiko taldeak hain beharrezkoak dituen puntuak lortzeko beste aukera bat izango du zapatuan. Bilboko

Eskolapios laugarren tokian dago sailkatuta eta ez da aurkari samurra izango. Hala ere, Herreroen mutilek mailari eusteko bigarren bueltako partidu dexente irabazi behar dute eta ezin dira lasaitu.

SASKIBALOA Iturripen zita



Arrasate saskibaloiko taldea eta Fineco izango dira nor baino nor zapatuan arratsaldeko 6etan, Iturripen. Bigarren sailkatuak ez dizkio gauzak samur jarriko Arrasateko taldeari. Arrasate, dena dela, ezin da sailkapenari begira egon eta joko ona erakusten ahalegindu behar du. Hauek ere, puntuak premia izugarria daukate.

RUGBYA Oraingoan bai



Arrasate Kirolak rugby taldea eta Hernani izango dira lehen zapatuan, hilak 17, arratsaldeko 4retan Garagartzan. Getxoren kontra galdu ondoren, arrasatearrak garaipenaren bila joango dira buru-belarri. Hernani talde sendo eta teknika onekoa bada ere, partidua etxean jokatuko denez, puntuak lortu daitezkeela uste dute.

ATLETISMO Gipuzkoako krosa



Arrasate Kirolak atletiko taldeko nagusiek Gipuzkoako krosean hartuko dute parte domekan Ezkion. Beteranoetan Kabieta, Mentxaka, Luelmo eta Gilek hartuko dute parte. Junioetan, berriz, Felix Sanchezek.

Eski alpinoa eta mendiko eskia egiteko aukera Besaideren eskutik

Lehenengo elurteekin batera, Besaide mendizale elkarteke eski saila abian jarri da. Apirilera arte Besaiderekin eskiatzen joateko aukera dute mondragoetarrek aste bukaerero. Eski alpinoa eta mendiko eskia egiteko bidaiak antolatzen ditu Besaidek.

ESKI ALPINOA

Asteburuko irteerak Formigalera izaten dira. Zapatuan goizeko 5etan autobusez abiatzen dira eta igandera arte elur gainean egiten den kirol erakargariaz gozatzeko parada dute eskiatzaileek. Besaidekoak Nievesol hotela hartzen dute, pentsio erdian. Prezioa bazkideentzat 11.000 pezetakoa izaten da; hotela, aseguria eta erremonteak barne. Bazkideez, baina Arrasaten bizi direnentzat 11.500 pezeta eta gainontzekoentzako 12.500 pezeta. Klaseak hartzeko asmoa dutenentzako, 4 orduko ikastaroak 2.400 pezeta balio du. Ikasle eta langabedian daudenek %50ko beharpena izango dute. Materiala, berriz, 2.200 pezetatan izango dute alokagai. Aste bukaeran Formigalera joateko erreserba astelehen, astearte eta asteazkenetan egin behar da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte.

IRTEERA BEREZIAK

Aste bukaerako eski irteerez gain, Besaidek irteera bereziak ere antolatzen ditu Aste Santu eta San Jose Zubirako.

Aste Santutan, apirilaren 10etik 18ra arte, Alpeetara joango dira, Tignes-Vall d'Isère-ra hain zuzen ere. Bidaia autobusez egingo dute eta apartamenduak alokatuko dituzte.



Besaidekoek aste bukaerero izaten dute zita elurrarekin.

Bidaia horren kostua: Bazkideentzat 52.000 pezeta; gainontzekoek 53.000 pezeta. 15 urtetik beherako bazkideek 48.000 pezeta eta gorakoek 49.000 pezeta. Alpeetara joan bai, baina eskiatzeko asmorik ez dutenek 20.000 pezeta gutxiago ordainduko dute.

San Joseko zubian Besaidek Baqueira Beretera prestatu du irteera, martxoaren 19tik 22ra arte. Arrasatetik joaten

direnak Viella hotelean pentsio erdian egongo dira. Prezioa bazkideentzat, 34.000 pezeta; besteentzako, 35.000 pezeta.

MENDIKO ESKIA

Mendiko eskiko kanpaina maiatzara arte luzatuko da. Urtarrilaren 30tik bata arte, denboraldiko hirugarren irteera egingo dute Formigalera. Otsailaren 28tik martxoaren bata arte, Atxerito eta Bisau-

rinera joango dira. Apirilaren 25-26an Neouwillera eta maiatzaren 23-24an Anetora. Bidaia hauek Besaidek antolatu ditu baina programazioaren barruan beste bi irteera daude Euskal eta Gipuzkoako Mendizale Federakuntzak antolatutakoak. Otsailaren 15 eta martxoaren 13an izango dira.

Eskiaren maitale zaretenok hemendik aurrera Pirineo eta Alpeetako eski estazioetara joateko aukera ugari izango duzue Besaideren eskutik. Neguko kirol zuria gertu-gertutik ezagutu ahal izango da. Gainera, urtean-urtean, eskiatzaile kopurua gorantz doa. Izan ere, duela urte batzuk dirudun kirola zena gaur egun guztion kirol bihurtu da. Esandakoa esanda, eskiatzeko behar diren tresna guztiei hautsa kentzeko garaian gaude. Beraz, kirola egin eta bide batez, ondo pasatzeko, aurten ere Besaide elkarteak irteera polit askoak antolatu ditu.



Gaur arte Zaldibarren sortutako arazoen protagonistak jokalariaik izan badira ere, azken ihardunaldian antolatzaileek hartu dute lekukoa. Antolatzaile batzuen erruz, ez ziren domekako neurketak jokatu.

Batzuk ez badira besteak

Laburrak

■ ANTOLATZAILEEN ARTEAN HASERRE

Pil-pilean dago Zaldibarren antolatzaileen arteko giroa. Aurretik zetorren arazoak aste bukaera honetan eztanda egin du eta domekan jokatu beharreko neurketak bertan beharra gelditu ziren. Itxura denez, antolakuntzako lagun batzuk

ganora gutxikin dabilta eta hortik etorri ei da arazoa. Hala ere, antolatzaileek ez digute ezer argitu nahi izan. Momentua heltzen denean benetako arrazoiak emango dituztela adierazi dute.

■ ZIGORTUTA

Bukanak taldeko Xabier

Lasagabaster eta Aitor Lascurain jokalariek bi partiduko zigorra jaso dute Jey Holigans taldearen kontrako neurketan iskanbila sortzeagatik. Horrez gain, Bukanak taldea arbitratzera ez zenez aurkeztu, 2 puntu gutxiago ditu eta 10.000 pezetako fidantza galdu du.

■ ATZERATUTAKO PARTIDUEKIN ZER?

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 12. ihardunaldian jokatu barik geratu ziren partidua bi aste barru jokatu dira, kaltetutako taldeak ados badaude. Aste honetako ihardunaldia normaltasunez jokatuko da.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA

BEHERAPENAK!

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Partidu interesgarriak

Zapatuan jokatuko diren hiru partidu komentatuko ditugu. Zaldibarren, eguerdiko 12etan, Borrock Roll taldearen arerioa AT Celaya izango da. Iturripe An, 3etan Lorategi-Totem izango dira aurrez aurre. Iturripe Bn ordu bietan, AC Surcos eta Pipwhisek neurtuko dituzte indarrak. Domekan, berriz, eguerdiko 12etan Aldibi eta Insert Coin taldeen arteko partidu egongo da ikusgai.



Hurrengo partiduak

13. Ihardunaldia

Urtarrilak 17, Zapatua

Zaldibar

- 8.50 Estrella taberna - kamasutra
- 10.00 jotakabau - Nuevo taberna
- 11.00 Pepelus - Bukanak
- 12.00 borrock Roll - aT celaya
- 13.00 Naranja Mekanika - Iluna taberna
- 14.00 Argi Ibili - KK jauri
- 15.00 Jey Holigans - Ainarexia
- 16.00 Babajana Sexy - m Ganbelas
- 17.00 Etxe Mobil - Makai
- 18.00 Onaniereng - Potrosorri
- 19.00 Aldapa taberna - Txeyenex

Iturripe A

- 11.00 Irati STS - Rotor de Bolbogrado
- 12.00 Ke Oxtias - Garaje Oscar
- 13.00 BTrayer - Zotz
- 14.00 Tamagotxi - Branka taberna
- 15.00 Lorategi - Totem
- 16.00 Sokoakoak - Cartonajes igamo

Iturripe B

- 13.00 Komando Alpagat - Lauterbrunnen
- 14.00 AC Surcos - Pipwhis
- 15.00 Orlando Piratas - Joka al rey
- 16.00 Elisabeth - Lso Heredia

Urtarrilak 18, Igandea

Zaldibar

- 9.50 Aurrera Bolie - Koka Juniors
- 11.00 Nacex - Leya
- 12.00 Aldibi - Insert Coin
- 13.00 Sobredosis de Claro - Fraguel gol

**Sinestezina!
Orain merkeago!**

AMI OINETAKOAK

oinetakoan autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

**TELLERIA
AUTO-ESKOLA**

Juan Carlos Guerra
enparantza
Tfnoa: 79 18 39
ARRASATE

Mitarte, 18
Tfnoa: 79 53 51
ARETXABALETA

**Pavimentos AGR
ARROZTEGIA**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxa: 77 11 20

JOSEBA EZPELETA (AED ELKARTEKO LEHENDAKARIA)

“Euskara elkarteok Euskara”

Orain dela hilabete eskas, iazko abendu-
duan, AEDk sari garrantzitsu bat jaso
zuen Gipuzkoako Diputazioa-
ren eskutik. Euskararen alde
egin duen lana eskertzeko,
97ko Anton Abbadia saria
elkarte arrasatearrari eman
zion Foru Aldundiak. Sari bana-
ketara hurbildu ziren AEDko
bazkideen aurpegietan irri-
ferra eta poza nabari zen AED
saridun zela ezagutzera eman
zenean. Saria jasotzerakoan,
Joseba Ezpeleta AEDko lehen-
dakariak arrasatear guztiei
eskaini zien.

- Saria jaso duzuela eta,
jende askok zoriondu zaituz-
te?

- Bai, saria dela eta
AEDren izena komunikabide
askotan azaldu da. Bestalde,
kalean ere jende askok eman
dizkigu zorionak. Jendea asko
poztu da, sari horrek erreko-
nozimendua ekarri digulako.

- Beraz, irabazi duzun
milioia baino garrantzitsu-
goa da errekozimendua.

- Horrela da. Gainera, non-
dik datorren da esanguratsue-
na. AEDk eta herri ekimenak
sektore ofizialetik jaso dute
onespena. Era horretan, admi-
nistrazioak onartu du herri
ekimenak baduela zeresanik,
eta garrantzitsua dela Euskal
Herriaren normalizaziorako
bidean. Euskararen normali-
zazio bidean sektore ofiziala
konturatu da gure beharra
dagoela. Hirugarren mundua-
ri laguntzeko gobernuz kan-
poko erakundeak dauden
moduan, euskaren kasuan, gu
Euskal Herriko ONGak gara.

Datorren lekutik datorre-
lako eta esan nahi duenagatik
da inportantea saria. Bestal-
de, orain arte egindako lana-
ren saria ere bada.

- Sari horrekin milioi bat
pezeta eta urrezko ontza bat

jasoko duzue. Horrekin zer?

- Oraindik ez dugu milioia
jaso eta ez dakigu zertan gas-
tatuko dugun. Milioia, baina,
ez da AEDrendako bakarrik
izango. Bost elkarteren artean
banatuko dugu.

Kontuan izanik aurten
betetzen direla 15 urte AED sor-
tu zela eta 10 Arrasate Press
eta Txatxilipurdi sortu zirela,
seguruen urtemuga horien
inguruan antolatuko diren
ekintzetara zuzenduko dugu
dirua.

- Lehendakari izanik, saria
jasotzerakoan herriari eskai-
ni zenion. Zergatik?

- Arrasatearrei eta batez ere

“Anton Abbadia sariarekin administrazioak
onartu du herri ekimenak baduela
zeresanik, eta garrantzitsua dela Euskal
Herriaren normalizaziorako bidean”

al Herriko ONGak gara”

AEDko bazkideei eskaini nien. Saria jasotzerakoan argi nuen bazkideen ordezkaria nintzela, eta bazkideok herritarrak garelara, herriarendako lan egin eta herria dugula helburu.

- Aurten 15 urte beteko ditu elkarteak. Aurrera begira zer?

- Arazo berriekin egin dugu topo eta horiei erantzun bat topatzen ahalegindu beharko dugu. Alde batetik, gero eta zailagoa da elkarteetan lan egiteko gertu dagoen jendea aurkitzea. Akaso elkarteetan parte hartzeko gertu dagoen jende kopurua beretsua izango da beti, baina gaur egun elkarte gehiago dago eta beharra handiagoa da. Hala ere, ikusten da belaunaldi berriak ez direla integratzen gure estrukturan. Arazo hori elkarte guztiek bizi dute. Beste arazo bat da elkarteek egitura enpresariala dutela. Era horretan, erantzun bat eskatzen

diote langilegoari. Arazoak ikusten dira batzuen ogibidea elkarteetan dagoelako. Ezin daiteke hasierako pentsaerarekin funtzionatu enpresa izatera pasatu garenez gero.

- AED euskarari bultzada emateko sortu zen. Hamabost urtetan eman da aurrerapazorik?

- Datu objetibo batzuk daude Arrasateko euskararen erabilpenari buruzkoak. Orokorrean azken urteotan euskararen erabilpena %10etik %30a izatera pasatu da. Ezagupen aldetik ere kopuruak

gora egin du baina ez da AEDk egindako lanagatik izan baka- rrik. Beste lorpen bat izan daiteke komunikabideen eraginez euskaraz irakurtzeko edo informatzeko ohitura errotu izana. Txatxalipurdiri esker, berriz, gaur egun aisialdia euskaraz bizi daiteke. Elkarte bakoitzak bere lana egin du eta hori gero euskararen erabilera islada- tu egiten da.

- Zuri aurten amaituko zaizu lehendakaritza.

- Gustatuko litzaidake horrela izatea baina ez dakit. Ni gertu nago AEDn jarrai-

tzeko, baina lerro hauen bidez jendea animatu nahi nuke lehendakari izatera.

- Zer ekarpen egin dizu AEDko lehendakari izateak?

- Pertsona moduan ekarpen handia egin dit AEDk. Bi urte hauetan jantzi egin naitzela uste dut. Oso positiboa izan da lehendakari karguan jardutea. Jende asko eta mobida berriak ezagutu ditut. Nik, berriz, zer aportatu diodan? Denbora, eta egin ahal izan dudana lana. Hala ere, ez dadila inor beldurtu. Bakoitzak ahal duena egiten du.

- AEDk laster txoko berri bat izango du.

- ELA sindikatuak orain arte eduki duen lokalaren erabilpen- eskubidea eman digu. Orain egoitza berria dutenez, zaharra utzi digute hainbat ekintza abian jartzeko. Ego- kitu eta lokala erabiltzen hasi- ko gara laster. ■

“Arazo berriekin egin dugu topo eta horiei erantzuna topatzen ahalegindu beharko dugu. Gero eta zailagoa da elkarteetan lan egiteko gertu dagoen jendea aurkitzea”



GRONDO

Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismok

* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.



Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.

Ongizate Aurrezpenaren abantailak libreta arruntaren eta eperako libretaren aldean.

	Libreta arrunta	Eperako Aurrezkiak	Ongizate Aurrezpena
Interes handia	Ez	Bai	Bai
Eskuragarritasuna	Bai	Ez	Bai
Edozein kopuru sartzea	Bai	Ez	Bai

Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ak nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan. Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erreztasun berberetzatzen jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezelakoa, baina eperik gabe.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonoan.



Erantzun zuzena.

Kiwixe, osasunaren fruitue

Arrasateko baratzetan hazten dien sasoiko fruitu eta barazkixen barri emoten ahaleginduko gare. Lehenengokue: *Kiwixe, osasunaren fruitue*.


Jatorrixeko Txinan dauken arren, Zelanda Berrixen eta Kalifornian landaketan da gehixen bat. Europan urte gutxi dala sartu zan. Euskal Herrixen lehenengoko landaketak 70-80 hamarkadetan ein zien. Kantaurialdiek klima egokixe dauko kiwixaren garapenerako: izotz haundi bako parajiek, hezetasuna eta 0-25° tarteko hotzberuek ditte gogoko. Arrasateko ixeko baserri guztixetan topatu leikez laupabost kiwi-ondo.

Kiwixek azala berde nabarra eta iletsua dauko. Bere mamine, barrez, berde ilune da, hazi txiki ugarikin. Zapore garratz gozue dauko, heldutasun puntuen jenez gero oso edarra; heldu barik dauenien, barrez, egurtsua eta mingotsa. Kiwixe jateko momentu aproposena, azala bigundu eta txurtena jausten jakonien izetan da. Inguru honeittako kiwixek ilbaltzien hartendae heldutasun puntue.

Kiwixaren bilketie azaroko lehenengoko izotzekin hasten da eta abendurako bukatuta egoten da. Hilabete hontan gogor xamarrak egoten die eta bigunketako plastikozko poltsa baten sagar batzukin batera jarten die 18-20° tarteko hozberuen; hola hamar egunetan-edo jateko moduen egoten die. Kiwixek leku frexkuen gordez gero denboraluzien mantenduten die.

Elikadura ezaugarri eta osagaixak:

Proteinak, gluziduek, A,



Sagarrak baino lau bider proteina gehixau dauko kiwixek.

B1, eta C bitaminak dauko. C bitaminari dagokixonez laranjak baino lau bider aberatsaue da. Sagarrak baino lau bider proteina gehixau dauko. Fosforo, kaltzio eta burdin aldetik askoz be aberatsaue ei da. Eta inportantiena osasun aldetik: pertsona batek eguneko C bitamina biherria kiwi bateaz beteten dau. Neguko fruitue danez, katarrue prebeniruteko oso egokixe da. Gainera, "osasunaren fruitue" libragarrixeko bada; kaka eitteko problemak daukiendako apartekue.

Gaur egun eskaerie haundittuaz doie. Merkauren atzerriko kiwixek topetan dittuaxi urte osuen. Kiwi honeik landaketa modernizatueta hazi eta urrinetik ekarri biher

die; hozkailuetan hilebetiek emoten daue. Hamengo kiwixek abendutik martxora bitartien topatu leikez azoketan; honeik elikadura ezaugarrixek oso-osorik mantenduten ditte.

Kiwionduaren landaketiari dagokixonez, einbiherreko batzuk kontutan hartu biherko geuke: hayward da barietate ebalixena; lur sakona eta paraje eguzkitsuaukera. Zuhaxka igokarixeko danez, euskarri gogorak jarri. Ongarri egokixe bota. Erlauntzak gertu eukittie mesedegarrixeko da. Ureztatuteko nahikue ekainetik irailera arte. Inausketie eitterakuen urteko pujak itxi.

Xabier Tramon

Euskerien txokoa

Zertan eta zertara

Bati baino gehiagori entzun dutzet hemen inguruen txarto ebaltzen dala zertara galdetu ostean esaten dena. Hau da:

Zertara zoaz Oñatira? San Migel jaia ospatzera.

Guk, barrez, Mondraue inguruen Zertan galdetzen dogu, eta erantzun: "ospatzen".

Ze(r)tan fan zara zinera? Donostiako zinemaldiko pelikula bat ikusten.

Zelan esan **BAZ-KAITTEN NOIE** ala **BAZKAITERA NOIE** /A...

ardauten goiez, ardaulara goiez, uretan, erosten, ikasten, esamiñe eitten...

Bixek dagoz ondo, baina inork ez daixela esan ZERTAN eta ardauten, bazkaitten eta forma horreik txarto dagozanik.

Errioxara fan da ardauten (ardautan)

Karmelo Uriarren

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Alai zinema bi aretotan banatzeko aukera aztertzen ari dira

Alai zinemako jabeak zine aretoa bitan banatzeko ideia ari dira aztertzen. Gaur egun 655 jarleku ditu Alai zinemak, 327 beheko solairuan, eta bat gehiago, 328, goikoan.

Bigarren zine aretoa moldatzeko bi arrazoi nagusi daude: alde batetik, gaur egun oso gutxitan biltzen da emanaldiko 300 ikusletik gora; bestetik, merkatuan dagoen pelikula eskaintza oparoari ezin erantzutea.

Astean bi filme ematen ditu Alai zinemak, urtean 100 inguru. Merkatuaren eskaintza kontuan izanda, kopuru apala da. Beste modu batera esanda, pelikula asko ezin da Arrasatera ekarri.

Kalean multizinema egingo ote duten zurrumurrua hedatuta badago ere, ideia bigarren aretoa zabaltzea da, oraingoa bitan zatituta.



Full Monty, 97an Arrasaten ikusle gehien izan duen filmea.

Momentuz asmoa besterik ez dena noiz gauzatuko den, berriz, ezin da jakin.

98rako beste asmoetako bat haurrendako emanaldi kopurua handitzea da.

ESTATUKO FILMEEK GORA

Zinemako arduradunek adierazitakoaren arabera, espainioladaren kontzeptua aldatzen ari da. Azken urtean euskal zuzendarien filmeek ikusmin handia sortu dute, eta Espainiakoek ere oso erantzun ona jaso dute ikusle goaren alde-tik (gehien ikusi diren filmeen artean Euskal Herriko eta Espainiako izenburuak daude).

Gorakada honen aldean, ostegun eta ostiraletan ematen diren filmeek erantzun eskasa jaso ohi dute. Jose Mari Hildagok, Alai zinemako arduradunak adierazitakoaren arabera "ostegun eta ostiraletan pelikula onak ematen dira sarritan, baina egun horietan oso ikusle gutxi etortzen da, eta beti jende bera da, benetako zinezaleak, Amaia-ko zine klubera joaten diren berberak".

97an ikusle gehien erakarri duten filmeak

Arrasaten bi aukera daude filmeak ikusteko: Alai zineman edo Amaia antzokian (udan Monterronen). Ondorengo zutabeetan, bai Amaia antzokian zein Alai zineman ikusle gehien zein pelikuek erakarri duten jakinarazten da.

Udalak antolatutako 26 zine emanaldi izan dira aurtien Amaia antzokian eta Monterronen. Guztira, iaz 2.400 ikusle hurbildu ziren zine klub emanaldietara.

Zine Kluba

- 1.- El día de la bestia
- 2.- Abierto hasta el amanecer
- 3.- Cosas que nunca te dije
- 4.- Four rooms
- 5.- Diario de un rebelde
- 6.- Pulp fiction
- 7.- La camioneta
- 8.- La canción de Carla
- 9.- Sostiene Pereira
- 10.- California

Alai zinema

- 1.- Full Monty
- 2.- Airbag
- 3.- Secretos del corazón
- 4.- Michael Collins
- 5.- Secretos y mentiras
- 6.- El club de las primeras esposas
- 7.- Mr. Bean
- 8.- Romeo y Julieta
- 9.- El funeral
- 10.- El perro del hortelano

KARRA ELEJALDE, AKTOREA

“Antzerkiari guztia zor diot”

Azken sei urteetan zine pantailetan arrakastaz-arrakasta ibili ondoren Bajo Ulloa, Medem, Alex de la Iglesia, Kalparsoro edo eta Almodovarren zuzendaritzapean, aurten antzerkiaren mundura itzuli da Karra *La kabra tira al monte* antzezlanarekin.

Monologo aldrebes honetan sexuaz, ezkontzaz, familiaz, drogaz, politikaz, eskuin berriaz, pijoez, Jaungoikoaz hitz egiten da, umorez, humore txarraz, ironiaz, eta beti galtzailearen ikuspegi marjinaletik.

Lan komikoa da, baina aldi berean, gaurko gizartearen kronika kritikoa.

- Nola azalduko zenioke antzokian sartu zain dagoen pertsona bati barruan ikusiko duena?

- Gauza asko nahasten dira. Burutik jota dagoen tipo batek bere bizitza aldrebeseko uneak ekartzen ditu gogora, eta bizitzan zehar topatu dituen lagun eta etsaien rola jokatzen du. 35-40 pertsonaia ditu obrak, baina guztiak protagonista bakarrak kontatu eta antzetzten ditu. Sendatzeko terapian porrot egin duen kontukontari baten bizipenetan oinarritutako psikodrama komikoa da.

- Zer esan nahi du izenburuak?

- Orain hamar urte egin genuen “Etc, etc” psikodramaren jarraipena da. Orduan alkoholzale ohi eta drogazale ohi zen protagonista. Hamar urte pasatutakoan, alkoholzale ohi ohi eta drogazale ohi ohi naiz obra honetan. Berriro zuloan jausi da protagonista, eta horregatik diogu *La kabra tira al monte*.

Beste esanahi bat ere badauka: berriro antzerkia egitera itzuli garela.



- Zergatik bueltatzen da aktorea antzerkira hainbeste urteren ostean eta monologoaren erronka hartuta?

- Antzerkiari guztia zor diolako. *Etc, etc* izan zen nire lehenbiziko monologoa, 1987an, nahikoa arrakastatsua izan zena. Hari esker zinea egiteko deitu didate. Eta behin monologo bat eginda, beste bat egiteko gogoia izan ohi da. Gainera, *Airbag* filmearen grabaketa neketsua izan zen eta gogoia neukan zinea aldi baterako utzi eta antzerkira bueltatzeko. Kontatu nahi ditudan gauzak kontatzeko aukera ematen dit antzerkiak. Ideologikoki inplikatu egiten naiz. Zinean gehienetan hori ez da posible.

- Zerikusirik badauka antzezlan honek zurekin?

- Bat ere ez. Erabiltzen dudana umoreak nire ikuspuntuarekin bat datozen ikutu ideologikoak ditu. Pertsonaiei dagokienean, ez dute nirekin zerikusirik. Ez da inondik inora autobiografikoa.

aste gazte

■ BEKAK

• Unibertsitarietzat, 1997-98 ikasturtean garraio gastuak ordaintzeko ohi kanpoko beka deialdi berezia. Epea: urtarrilak 22.

■ LANA

• UPV-EHU, espezialitate ezberdineko unibertsitate katedradunak, unibertsitateko irakasle titularrak, unibertsitate eskolako katedradunak eta unibertsitate eskolako irakasle titularrak behar ditu. Epea: urtarrilak 21.

• Berriako (Araba) Aterpetxerako sukaldari bat behar da. Epea: urtarrilak 27.

• Osakidetzak hainbat lanpostu kaleratu ditu: Administrazioari laguntzaileak, zelariak, erizain laguntzaileak eta erizainak. Epea: otsailak 2.

Administrari eta erdi eta goi mailako titulodunentzat epea: otsailak 7. Teknikari espezialista eta emagin postuetarako epea: otsailak 8. LHII informatiko eta goi mailako informatikarietzat epea: otsailak 9.

■ LEHIAKETAK

• Arrasateko Udalak antolatuta, haratuzteetako kartel lehiaketa. Epea: urtarrilak 23.

• Gasteizko Udalaren eskutik, narrazio laburren III. lehiaketa. Emakumeei zuzendutua, gai librean eta euskaraz zein gasteleraz aurkeztu ahal izango dira. Epea: urtarrilak 28.

• Arrasateko Hitza eta Ekintza taldeak antolatuta, logotipo lehiaketa “Gazteok batuz elkarlana bultzatu” lemapean. Txuribeltzean eta koloretan. Epea: urtarrilak 30.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Airbag-en grabaketa neketsua izan zen eta gogoia neukan zinea aldi baterako uzteko”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Bizkaia etorbidean pisua salgai. Berogailua eta bi ganbara. 82 m². Tel.: 79 22 92.

• Zumaian atikoa salgai. Guztiz berri-tua. 70 m². Gela guztiak kanpora ematen dute. 10,5 milioi. Tel.: 86 06 03. Gaueko 8etatik 10etara deitu.

• Juan Carlos Gerra kalean etxea salgai. Tel.: 77 14 93.

• Donostiako Amara auzoan etxebizitza salgai. Tel.: 45 85 09.

2. Erosi

• San Andres auzoan pisua erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

4. Errentan hartzeko

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

• Jantzitako etxea behar dugu hiru hilebeterako, (otsaila, martxo eta apirila). Tel.: 77 08 08.

5. Etxe konpartituak

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Etxea erdi aldean dago. Tel.: 85 16 64.

• Arrasaten lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. Tel.: 77 12 42. Iban.

• Alokaturako pisu baten sartuko nintzateke. Tel.: (948) 25 47 16. Gaueko 11ak baino lehenago.

• Gela bat nahi dut Arrasateko etxe konpartitu batean. Tel.: (94) 438 69 17.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

14. Errentan emateko

• Etxabea alokatzen da bulego, kontsulta eta abar jartzeko egokitua. Tel.: 79 18 95.

• Leintz Gatzagako Zuhaitz jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabil-tza. Tel.: 79 56 14. Igor.

LANA

17. Eskaintzak

• Titulodun neska gertu adminis-tratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Esperientziadun andra euskaldu-na etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Geriatrian diplomadun neska gaz-tea pertsona nagusiak zaintzeko ger-tu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79 61 05. Amaia.

• 35 urteko emakumea gertu sukald-ean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantxatzerajoa-terko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

• Umeak zaintzeko edo orduka gar-biketarako egiteko gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkal ordutan edo gauetan deitu.

• Emakume euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituz-ke. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 77 04 70. Gauez deitu.

• Jatetxe eta barrako kamareroa

behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Pertsona euskalduna behar da ume-ak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

• Esperientziadun neska behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egi-teko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gauez deitu.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egi-teko emakumea behar da. Tel.: 79 49 92.

• Emakumea behar da denda bate-an lan egiteko. Tel.: 77 13 91.

• 17-25 urte bitarteko kamareroa behar da. Tel.: 79 60 43. Isi.

• Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egi-teko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• San Viator Ikastolak kurtsu buka-era arte ingeniari euskalduna behar du Bigarren Hezkuntzan irakasteko. Kurrikulumak San Viatorreran eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

• San Viator Ikastolak ingeles filo-logoa behar du maiatzera arte ordez-ka-penak egiteko. Euskara menpe-ratzea beharrezkoa da. Kurrikulu-mak San Viatorreran eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezalajateko nes-ka bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak emango lituzke gaztekeraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neska OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

- Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainitze.

- Psikologoak OHoko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

- Jantzigintza klaseak ematen dira. Tel.: 79 53 36. Izaskun.

21. Eskaerak

- Injinerutzako lehen mailako ikasleak marrazketako klase partikularrak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

- Mate, natur eta gizarte zientziak emateko irakasle partikularra behar dut. ESoko 3. mila. Tel.: 79 98 28.

- Frantseseko klase partikularrak hartuko nituzke goizetan. Dei egin eguerdiko ordu batean 75 17 50 telefonora.

MOTORRA

23. Saldu

- Ford Fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

DENETARIK

26. Saldu

- Tosai markako kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 82 36 / 79 78 65. Gaeuz.

- Ileapaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

- Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modeloa. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

- Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.

- Meto markako barazki eta haragia pisatzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.

- Egoera onean dagoen disc-mana salgai. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gaeuz.

- Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gaeuz.

- Baserriko kiwi ederrak salgai. Aukera ederra! Tel.: 79 97 84.

- Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

- Kolore askotako eta berria den egu-

rrezko seaska salgai. Tel.: 79 56 53. Isabel.

- Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

- Kenwood 758 R kotxerako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

- Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

27. Erosi

- Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

- Bigarren eskuko kotxe eder eta merkea erosiko nuke. Tel.: 77 08 15. K. Allende.

30. Hartu

- Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar ditu. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

- Parrokiatik Ferixalekurako bidean erlojua galdu zitzaidan. Narruzko korrea azul iluna du. Tel.: 77 13 77.

- Abenduaren hasieran Korreos inguruan urrezko pultsera galdu nuen. Maribel 28/08/31 jartzen du. Balio pertsonala dauka. Eskertuko da. Tel.: 79 70 73.

- Monterongo parkean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen. Aurkitu badituzu, Zeziaga dendan utzi. Eskerrik asko. Eskertuko da.

- Paper garrantzitsu batzuk zituen karpeta urdina galdu nuen Iazko urriaren 28an San Andresen. Tel.: 970 41 74 08.

- Urtarrilaren 11n urrezko erlojua galdu nuen Olarte eta Erdiko Kale bitartean. Balio sentimental du. Eskertuko da. Tel.: 79 89 32.

32. Aurkitu

- Lasagabaster jantzidendan betaurrekoak eta giltzak utzi dituen pasa dadila bertatik jasotzera.

- Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.

37. Bestelakoak

- Irratsaio baterako antzinako diskoak behar ditugu. Zure diskoak egun batzutarako uzteko gertu bazaude dei egin 77 08 15 telefonora. Kaittin.



LORAMENDIN

%30

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak eta abar

BEHERA PENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andresen eta Garibain

■ Horoskopoa

- **Aries** Zure ametsetako bidaia egiteko aukera izango duzu.
- **Taurus** Mesede berezi bat eskatuko dizute. Ez egin kalerik.
- **Gemini** Munduko pianojolerik onena izateko, pianoa erosi beharko duzu.
- **Cancer** Bihar aspaldiko lagun bat ikusiko duzu, nor?
- **Leo** Aste honetan algodoizko hodeien artean baino gustorago ibiliko zara.
- **Virgo** Zure azukre koxkorra gozoezia egongo da egun hauetan.
- **Libra** Urrutiko lagun bat izango duzu etxean bisitari.
- **Scorpio** Bururatzen zaizkizun ideia guztiak zorakeriak izango dira.
- **Sagitaris** Zure ipurmasailak jendearen arreata gune bihurtuko dira.
- **Capricorn** Irratiko lehiaketa batean pingüino bat irabazteko aukera izango duzu.
- **Aquarius** Inguratzen zaituen jende faltsuaren gainera zaude.
- **Piscis** Erretzeari utzi beharko diozu, hortzak bainila kolorekoak dituzu eta.

■ Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13				14	
15				16	17		
18			19				
		20			21		

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Monterron liburutegi-ko bibliotekariaren abizena. 9. Zapatu. 10. Eusko Trenbideak. 11. Seiz osatu. 12. Italiako ibaia, Erromatik pasa eta Tirreniar itsasora isurtzen da. 14. Sexu maskulinoa duen animalia. 15. Hitz, berba. 16. Suarmetako jaurtigaia botatzearen ekintza. 18. Gurtzearen ekintza eta ondorioa. 20. Kenzaburo, 1994an Literaturako Nobel Saria eman zioten idazle japoniarren izena. 21. Mea eraldatu eta burdina lortzeko tokia.

Bertikalak 1. Alea gordetzeko tokia, bihitegi. 2. Suarmak tiroa egiteko duten piezaxoa. 3. Iridioa. 4. Bulgariako hiria, Danubioren ertzean. 5. Geldo. 6. Ahabi. 7. Gogogabe. 8. (Ald.) Bizkaiko udalerria. 13. Gorputzarena baino altuago den tenperaturak eragiten digun tentsioa. 17. Mitologia grekoan, Kadmo eta Harmoniaren alaba. 19. Alfabetoko hamazazpigarren letraren izena.

Horizontalak: 1. Aguiriano. 9. Larrunbat. 10. ET. 11. Seiko. 12. Tiber. 14. Ar. 15. Eie. 16. Tiro. 18. Gorpun. 20. Oe. 21. Oia.
Bertikalak: 1. Alegi. 2. Gatil. 3. Ir. 4. Ruse. 5. Inerte. 6. Ahi. 7. Nakar. 8. (Ald.) Amoroto. 13. Bero. 17. Ino. 19. Pe.



Lan eskaintzak

ATB • Arrasate Telebista

Bi teknikari

Baldintzak

- Euskara ondo menderatzea
- Ikus-entzunezkoen ezagupena
- Gidatzeko karneta eta autoa

Lanpostuen betebeharrak

- Astebukaera eta jaiegunetan ATBko teknikari lana

Kurrikulum-ak aurkezteko epea

URTARRILAREN 30EAN BUKATUKO DA

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Gerentea

Ezinbesteko baldintza

- Euskara ondo menperatzea

Baloratuko direnak

- Administrazio edo eta ekonomi mailan titulazio eta esperientzia
- Komunikabide munduaren ezagupena
- Lantaldeak antolatze eta zuzentzeko gaitasuna
- Harremanetarako erraztasuna
- Komertzialgintzan esperientzia

Kurrikulum-ak aurkezteko epea

OTSAILAREN 12AN BUKATUKO DA

Kurrikulumak ARKOko Administrazio bulegoan jasoko dira

Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26

Eskalatzaile baten eskutik Australiako Arapiles mendira

Asteazkenean, gaueko 9.30etan, Australiara joko du Munduari Bueltakea saioak Erramun Irastorzari esker. Abenturazale ordiziarrak betidanik izan du gogoko eskalatzea eta Australiara ere helburu horrekin abiatu zen. Bertan hilabete pasatu zuen basamortu erdian dagoen Arapiles mendia eskalatzeko.

Arapiles mendiaren horma ez da oso ezaguna, baina bertako argazki batzuk ikusi ondoren liluratuta geratu eta bertara joatea erabaki zuen Erramunek. Saiõarekin bat egingo duzuenok ere Arapilesen edertasunarekin gozatzeko aukera izango duzue, 33 urteko ordiziarrak, eskalatzailea ezezik, argazkilari bikaina ere bada eta. Arapileseko gorabeherez gain, eskaladari buruz berba egingo du Erramun Irastorzak, eta baita Australiako faunaren gainean ere.



Erramun Irastorza Australian.

Asteazkenean ikusgai izango diren argazkiak hain-

bat aldizkaritan argitaratuak izan dira.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrendako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarriekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek egindako magazina.

Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 17	ASTELEHENA, 19	ASTEARTEA, 20	ASTEAZKENA, 21	OSTEGUNA, 22	OSTIRALA, 23
Astean zehar eskainitako programa interesgarrienen errepikapena	13:30 Astebete . (Errepik.)	13:30 Mondrasport . (Errepik.)	13:30 Buru astinduz . (Errepik.)	13:30 Munduari bueltakea . (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak,... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Lotsa barik . Gonbidatuak: Juan Luis Lekunberri eta Bego Lekunberri.	21:30 Munduari bueltakea . Australia.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . Patxi Montero. Astean zehar jasotako berrien errepasoa.
14:45 Munduari Bueltakea . Tibet eta Nepal.				21:30 Kukaratxa Motel .	



Argi ikusten denez, argazkiko futbolariak gaztetasuna aspaldi utzi zuten atzean baina ez gaztetako afizioa. Futbola gustoko zutenez, urtero bildu eta partidua jokatzen zuten garai batean

Mondra taldeko jokalaririk izandakoez. Argakiak gutxi gora-behera 60. hamarkadako behar du izan baina ezin esan zehatz-mehatz zein urtetakoa den, ezta non eta zein talderen kontra jokatu zuten ere. Hori bai, argi ageri denez, ikusle asko hurbildu zen Mondrako

beteranoen partaidua ikustera.

Zutik: Juan Herrero "Potxo", Castor Uribe, Monti "Viejo", Mendizabal, Heriz, Divino II, Berezibar "Txaparro", Arizaga "Txanboli" eta Divino I.

Makurtuta: Jesus Vitoria, Guridi "Ciriles",

Kortabarria "Txaiku", Balzategi "Erregetxo", Cano, Egidazu, Aranburu, Zubillaga eta Jesus Moreno "Barbosa".

Informazioa eta argazkia:
Juanjo Herrero

Etxe Aundi
Hotela**  Jatetxea



Torrauzo, 9 • OÑATI • Tel.: 78 19 56 / 78 32 9

errezeta

**LENGORADUA KARABINERO SALTSA
ETA LANGOSTINOZ BETEA**

OSAGIAK 4 lagunendako:

- 4 lengoradu 400 grkoak (+)
- 16 langostino
- Kipula, berakatzu, porrua, azenarioa, tomate frijitua.
- Cognac, ardo zuria
- Arrain Fumeta (salda)
- Langostino azalak (karabineroak)
- Pistola ogia.

PRESTAKETA

- Lengoraduak garbitu, azala kendu eta xerraztatu.
- Langostinoei azala kendu (ahal bada karabineroak)
- Bildu eta txotxekin ziztatu kateatu daitezzen.
- Baporean egosi 5 minutuz.

KARABINERO SALTSA

- Barazkiak sueztitu, eta azalak gehitu.
- Cognac-arekin flanbeatu, ardoa eta arrain salda gehitu. Pistola ogia eta tomate frijitu apur bat eta egosten utzi.
- Ondu, saltsa turmix eta iragazitik pasatu eta saltsa prest dago.

Lengoraduak egosita saltsarekin estali eta barazki frijitu eta egosiekirik berbitzatu.

1998.a berrikuntzekin dator!



ORDUTEGI BERRIA IGERILEKUAN

8.00etatik 21.00etara

INFORMAZIOA
77 16 77 telefonora deituz



IKASTARO BERRIA Errehabilitazioa igeriketa eta gimnasiaren bitartez

Talde murriztuak.
Gainontzeko ikastaroetan ordutegi berriak.
Informa zaitez!



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■
Kirol Erakundea ■
■

NEGUKO HAMABOSTALDIA

Etorri eta aprobetxatu
ARRASATE KIROLAKek eta
ELISABETHek **NEGUKO**
HAMABOSTALDIAN eskaintzen
dituen aukerak!

- Mendiko sailean
- Gore-Tex jantzietan
- Kirol arropatan
- Dinetako eta zapatilatatan

Zure txanda da. Zai gaituzu, ez galdu aukera!



Araba etorbidea, 18 • Tel.: 77 14 86 • ARRASATE

Kontzeziño kalea, 8 • Tel.: 79 46 12 • ARRASATE

OKENDO KIROLAK

**KIROL MODA GUZTIA
DESKONTU BEREZIEKIN!
TXAMARRAK • TXANDALAK • ZAPATILAK**

